

10 langile edo gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen herena berritzaile izan zen 2001-2003 aldian


2003. urtean teknologia-berrikuntzako jardueretarako 1.836 milioi euroko gastu osoa erabili zen, hau da, BPGaren %3,9

EUSTATEk Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetako teknologia-berrikuntzari buruz egindako inkestaren arabera, enpresen %16,6 berritzailea izan zen. Horretarako, enpresek produktu (ondasun edo zerbitzu) berriren bat edo nabarmen hobetu bat sartu zuten merkatuan edo, establezimendu barruan, prozesu berri bat edo nabarmen hobetu bat sartu zuten 2001-2003 aldian. Ehuneko hori, gainera, %32,1eraino igotzen da 10 langile edo gehiago dituzten enpresak kontuan hartuz gero.

Enpresek, 2003. urtean zehar, teknologia-berrikuntzetarako jardueretan 1.836 milioi euroko gastuak izan zituzten, hots, BPGaren %3,9. Berrikuntzetan izan zituzten gastu guztien artean nabarmentzekoak dira: Barneko I+Garen gastua (guztirakoaren %38,6), makineria eta tresneria eskuratzeko gastua (%35,8), eta gainerako jardueretarako gastua (%25,6).

Estatuan, eta datu homogeneousak erkatuta, 2001-2003 aldian izan zen enpresa berritzaile kopurua Euskal Autonomia Erkidegokoa ia hamar portzentaje-puntutan gainditu zuen. Bestalde, enpresek 2003ko BPGarekin lotuta berrikuntzarako izan zuten gastuari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegokoa ia bikoiztu egiten ditu Estatutuko kopuruak.

1. grafikoa: 2003. urteko berrikuntzarako gastuaren banaketa, jardueren arabera. (%)



Iturria: Eustat

Enpresa berritzaileen %36,8ak finantzaketa publikoa du. Ehuneko hori %43,8raino igotzen da 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan

Finantzaketa publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileen artean, laguntzaren jatorria aintzat hartuta, argi eta garbi ikusten da enpresa horietako %29,2ak Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzen dituela; eta enpresa kopuru txikiagoek beste administrazio batzuen laguntzak jasotzen dituzte. 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan ere Eusko Jaurlaritza da laguntza gehien ematen dituen, mota horretako enpresen %32,7ak bere laguntzak jasotzen baititu.

1. taula: Finantzaketa publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, jatorriaren arabera. 2001-2003. (%)

	Guztira	10 langile edo gehiago
Toki Administrazioak	3,6	4,8
Foru Aldundiak	10,1	11,3
Eusko Jaurlaritza	29,2	32,7
Administrazio Zentrala	2,4	13,1
Europar Batasuna	2,1	5,7

Iturria: Eustat

Produktu berritzaileen batez besteko eragin ekonomikoari dagokionez, produktu hauek enpresa berritzaileen negozio kopuru osoaren %40,7 suposatzen dute; aldatu gabeko produktuek edo pixka bat aldatutako produktuek, ordea, gainerako %59,3 suposatzen dute. Produktu-berrikuntzak enpresarako ez ezik merkaturako ere badira, eta horien batez besteko eragin ekonomikoa %11,5ekoa da.

10 langile edo gehiago dituzten enpresetan ehuneko horiek aldatu egiten dira; orain, produktu berriek edo nabarmen hobetuek negozio kopuruan duten eragina %25ekoa da. Produktua merkaturako ere berria bada, batez besteko eragin ekonomikoa %10,4koa izango da.

Bestalde, enpresen erdien (hain zuen %50,2aren) ustez **faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntzari traba egiten diote**. Faktore horien artean, enpresek hauek nabarmentzen dituzte: berrikuntzaren kostuak gehiegizkoak izatea eta arrisku ekonomikoak gehiegizkoak izatea.

2. taula: Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak. 2001-2003. (%)

	Guztira	10 langile edo geh.
Ekonomia-faktoreak:		
.-Gehiegizko arrisku ekonomikoak	33,1	35,5
.- Berrikuntzaren gehiegizko kostuak	38,9	44,9
.- Finantzatze iturririk ez	30,5	34,2
Barne-faktoreak:		
.- Antolakuntzaren zurruntasunak	9,8	20,6
.- Langile kualifikatuen falta	14,5	21,0
.- Teknologiaren gaineko informazio-falta	18,5	19,7
.- Merkatuen gaineko informazio-falta	16,4	18,5
Bestelako faktoreak:		
.- Malgutasun gutxi araei dagokienez	14,1	18,5
.- Bezeroen sentikortasun-falta	20,0	21,8

Iturria: Eustat

Azkenik, 2001-2003 aldian euren asmakuntzak edo berrikuntzak babesteko asmoz patenteak edo beste babes-metodo batzuk erabili dituzten enpresa berritzaileak %22,1 dira. Horrela, aldi horretan, enpresen %8,0ak patenteren bat eskatu zuen eta %5,6ak patenteren bat indarrean zuen 2003. urtearen amaieran. Halaber, aldi berean, enpresa berritzaileen %15,6ak beste babes-metodo batzuk erabili ditu. Azken hauen artean daude fabrika-markak, egile-eskubideak, e.a.

Ehuneko hauek gehitu egiten dira, alabaina, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileak bakarrik kontuan hartzen badira. Zehazki, enpresa berritzaile horien %36,3ak patenteren bat edo beste babes-metodoren bat erabili du aldi horretan; %10,3ak patenteren bat eskatu du 2001-2003 aldian eta %13,5ak patenteren bat zuen indarrean 2003. urte amaieran. Era berean, enpresa horien %32,5ak beste babes-metodo batzuk erabiltzen zituen.

Ohar metodologikoa: EUSTATEk egindako Teknologia-Berrikuntzaren Inkesta edozein tamainako eta jardueraren edozein sektoretako (lehenengo sektorea izan ezik) EAEko enpresei, herri administrazioei eta etxeko zerbitzuei zuzentzen zaie. Inkestaren helburua, enpresek teknologia-berrikuntzarako gauzatzen dituzten jardueri buruzko informazioa ematea da. Inkestak, gainera, EAEko 3.400 establezimenduko eredu-lagin bat hartzen du oinarri gisa.

Alderdi homogeenak aintzat hartuta Estatuarekin erkaketak egin ahal izateko 10 langile edo gehiago dituzten enpresei buruzko datuak hartu dira eta hezkuntza sektorea baztertu egin da.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Miguel Escalada

Tlf:+34-945-01 75 07 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es